



**UDA IKASTAROAK**  
**CURSOS**  
**DE VERANO**  
UPV/EHU

# **UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren jarduerak 2016. urtean izandako eraginaren azterketa**

---

**Eragin ekonomikoa, mediatikoa eta intangiblea**

**Donostia-San Sebastián**  
**30/10/2017**



## AURKIBIDEA

<b>1. Azterketaren irismena eta testuingurua</b> .....	<b>3</b>
<b>2. Azterketaren edukia</b> .....	<b>4</b>
<b>3. UPV/EHUko Uda Ikastaroetako parte hartzaileen karakterizazioa eta kuantifikazioa, eta sortutako gastua.</b> .....	<b>5</b>
A. Ikasleak .....	6
EAEko ikasleak.....	6
Espainiar estatuko beste leku batzuetako ikasleak.....	7
EBko ikasleak. ....	9
Munduko beste leku batzuetako ikasleak. ....	10
B. Irakasleak.....	10
C. Laguntzaileak.....	12
Estatuko beste leku batzuetako laguntzaileak. ....	12
EBko eta munduko beste leku batzuetako laguntzaileak .....	13
<b>4. Eragin ekonomikoaren kuantifikazioa</b> .....	<b>16</b>
A. Zuzeneko eragin ekonomikoa:UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa	16
B. Zeharkako eragin ekonomikoa .....	19
Ikasleak eta beren laguntzaileak .....	19
Irakasleak eta beren laguntzaileak.....	20
C. Induzitutako eragin ekonomikoa.....	23
<b>5. Eragin mediatikoa</b> .....	<b>26</b>
<b>6. Eragin "intangiblea"</b> .....	<b>28</b>
A. Eragin "intangibleen" deskribapena eta zerrendaketa.....	28
<b>7. Sintesia eta ondorioak</b> .....	<b>31</b>
A. Uda Ikastaroak zifretan .....	31
B. Eragin ekonomikoa .....	31
C. Eragin mediatikoa .....	33
D. Eragin "intangiblea" .....	33
<b>8. Bibliografia</b> .....	<b>34</b>



## 1. Azterketaren irismena eta testuingurua

Udak Ikastaroak Fundazioaren Plan Estrategikoan (2016-2018) erakundearen xedea berrikusi zen. Uda Ikastaroen xedea honako hau da:

- Ezagutza dibulгатzea eta zabaltzea, bereziki UPV/EHUn sortutakoa, Euskal Herriatik eta nazioarteko proiektioarekin.
- Ezagutza profesionalak eguneratzea, arreta berezia jarrita maila guztietako irakasleen prestakuntzan.
- Unibertsitateen arteko harremana.
- Euskal kultura eta ikasketak nazioartean dibulгатzeko eta irakasteko ekarpena egitea.
- Etengabe aldatzen ari den gizartearen inguruko eztabaida eta pentsamendu kritikorako espazio bat eskaintzea, gizartearen ongizatea, Euskal Herrikoa bereziki, hobetzeari begira.

Uda Ikastaroen xede osagarria da UPV/EHUren eta erakunde kolaboratzaileen eta babesleen irudi positibo bat transmititzea.

Haren xedea hedatzeko, ikastaroak irekita daude Euskal Herriko, Espainiako eta Europako erakundeekin kolaboratzeko.

Xede hori lotzeko aurrerapausoak emate aldera, Fundazioak bere jardueraren eraginaren azterketa bat egiteko eskatu dio Euskal Unibertsitate Sistemako IT 1073-16 Ikerketa- taldeari. Azterketa UPV/EHUko Sustatuz Egitarauko parte hartzailea den Peru Dominguez Olabide ikasleak egin du, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko irakaslea eta aipatu Ikerketa Taldeko partaide den Alberto Díaz de Junguitu-ren zuzendaritza eta tutoretzarekin.

Ohiko adierazleez gainera, xedearen alderdiak hobeto neurtzea ahalbidetuko duten beste aldagai batzuk eduki nahi dira.

Azterketak eragina neurtzeko oinarri metodologikoak finkatuko ditu, eta hori baliagarria izango da Fundazioaren jardueraren irismenaren bilakaera ebaluatzeko, hainbat edizio kontuan hartuta. Adierazle horiek kudeaketarako aginte laukian sartuko dira, eta xedea lortzeko bidean aurrera egiten ahalbidetuko dute.

Azterketak UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak egindako jarduerak sortutako eraginaren analisia aurkezten digu.

## 2. Azterketaren edukia

Azterketa hiru multzo nagusitan bereizi da, eta multzo bakoitzaren aztergaia desberdindu da. Zehazki, lehen multzoan, eragin ekonomikoa kalkulatu da; bigarrenean, hedabideetan izandako eragina, eta, hirugarren eta azken multzoan, eragin "intangibleak" identifikatu dira. Honela, dimentsio anitzeko izaera eman zaio azterketari, eta horrek Fundazioak sortutako eraginari buruzko ikuspegi zabalagoa edukitzea ahalbidetu digu. Azterketa egiteko, 2016. urteko datuak erabili dira; hortaz, azterketaren denbora muga 2016. urtea dela esan daiteke.

**Eragin ekonomikoaren** azterketak zifra handien analisi bat ematen digu, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak antolatutako jarduerak 2016. urtean sortutako produkzio, enplegu eta ekonomia itzulera terminoetan. Horri dagokionez, aipatu behar dugu, neurtzeko zailtasunak direla eta, on-line ikastaroak ez direla sartu analisian.

Zati hori egin ahal izateko, jardueretan izandako parte hartzaileak zenbatu eta karakterizatu behar izan ditugu. Nabarmendu behar dugu azterketaren lehen kapitulu osoa eginkizun horri eskaini zaiola.

**Hedabideetan izandako eraginei** dagokienez, analisiak hedabideei buruz erantsitako datuetan jarri du arreta nagusia. Bereziki nabarmendu da Fundazioak antolatutako jarduerak hedabidetan izandako estaldura eta lekua.

Amaitzeko, **eragin "intangiblearen"** analisian, Fundazioaren jardueretatik eratorri, eta lurraldearen garapena hobetzeko eragin positiboa duten kanpo eragin positiboak identifikatu dira.

### 3. UPV/EHUko Uda Ikastaroetako parte hartzaileen karakterizazioa eta kuantifikazioa, eta sortutako gastua.

2016. urtean, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak ikastaro, tailer, eskola, jardun profesional, kongresu eta jarduera irekien artean, 166 jarduera<sup>1</sup> antolatu zituen guztira, eta 12.267 pertsonak parte hartu zuten. Parte hartzaileak, aldi berean, 1.944 laguntzaileekin etorri ziren, eta, antolatutako jardueretan parte hartu ez bazuten ere, Euskal Autonomia Erkidegoan eragin ekonomikoa izan zuten.

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak 2016an antolatutako jarduerak	
JARDUERA MOTA	Kop.
Ikastaroak, tailerrak, eskolak, jardunaldi profesionalak	125
Kongresuak	25
Jarduera irekiak	16
<b>GUZTIRA</b>	<b>166</b>
Iturria: Uda Ikastaroak Fundazioa, 2016ko memoria	

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak antolatutako ekitaldietara joandako parte hartzaileen tipologia	
Parte hartzaile mota	2016
Irakasleak	1.692
Ikasleak	10.575
Laguntzaileak	1.944
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.211</b>
Iturria: Uda Ikastaroak Fundazioa, 2016ko memoria	

Hortaz, Fundazioak antolatutako jardueretan, orotara, 14.211 pertsona mobilizatu dira, eta haien tipologia aintzat hartuta, hiru talde nagusitan bereizi ditugu:

- **Ikasleak.** Fundazioak antolatutako jarduerak erakarrira, beren ekimenez parte hartzen duten pertsonak dira. Orotara, joandako pertsonen % 74,4 dira.
- **Irakasleak.** Fundazioak eskatuta parte hartzen duten pertsonak. Protagonismo nagusia dute jardueren garapenean. Hizlariak, adituek, gonbidatuek eta abarrek osatzen dute talde hori. Orotara, joandako pertsonen % 12 dira.
- **Laguntzaileak.** Fundazioak antolatutako jardueretan parte hartzen ez duten arren, parte hartzaileekin batera joandako pertsonak dira, haiekiko lotura afektiboagatik edo bestelako arrazoirengatik. Orotara, joandako pertsonen % 13,6 dira.

<sup>1</sup>Lehen aipatu dugun moduan, analisi honetan ez ditugu kontuan hartu erakunde honek emandako on-line ikastaroak.

## A. Ikasleak

Ikasleen partaidetzak nabarmen egin zuen gora 2016. urtean, aurreko ikasturteko 9.192 matrikuletatik 10.575era<sup>2</sup> igo baitzen. Hau da, kopurua % 15,04 handitu zen. Zifra horiek kontuan hartuta, jarduera bakoitzeko parte hartzearen batez bestekoa 63,7 ikaslekoa da.

Gastua kalkulatzeko asmoz, talde hori lau azpitaldetan banatu dugu, jatorriaren arabera:

- EAEko ikasleak.
- Espainiar estatuko beste leku batzuetako ikasleak.
- EBko ikasleak.
- Munduko beste leku batzuetako ikasleak.

Ikasleen banaketa horren atzean dagoen arrazoia da ikasle bakoitzaren eredia eta gastatutako kopurua nabarmen aldatzen direla jatorriaren arabera. Ikasleen gastua kalkulatzeko erabili ditugun dokumentuetan<sup>3,4,5</sup> ageri diren zifrek gure ikuspegia berresten dute.

### EAEko ikasleak

EAEko ikasleek **egunero ikasleko batez beste 20,97 €-ko gastua** egin zutela kalkulaten da. Kopuru hori kalkulatzeko, Donostiako Sustapenak argitaratutako "*Kultura Hiriburutzaren eragin ekonomikoaren ebaluazioa*" azterketak Donostiarreneta *Txangozaleen* eguneko gastuei buruz emandako zifrak hartu ditugu oinarri gisa.

EAEko ikasleek osatutako taldea, oro har, "bertako" (ikastaroa egiten den udalerrian bizi direnak) ikasleek eta "txangozaleek" (ikastaroa egiten den udalerritik kanpo bizi direnak) osatzen dutenez, egoki iritzi diogu lehen aipatutako iturriaren erabilerari.


<sup>2</sup>UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak emandako datuak.

<sup>3</sup>Turismoaren Euskal Behatokia. *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa, MICE 2012-2013*. Turismoaren Euskal Agentzia.

<sup>4</sup>Turismoaren Euskal Behatokia. *Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turisten portaeraren estimazioa, IBILTUR 2012-2013*. Turismoaren Euskal Agentzia.

<sup>5</sup>Ikertalde. *Evaluación del impacto económico de la Capitalidad Cultural*, Donostiako Sustapena (2017).

Beraz, azterketak eskainitako zifrak oinarri hartuta eta gastu zifrak aztertutako jardueraren testuingurura egokitzeko zenbait aldaketa egin ondoren, EAEko ikasleen eguneko gastuaren banaketa honela geratu da:



Iturria: guk egin *Evaluación del impacto económico de la Capitalidad Cultural Donostia Sustapena* (2017) lanetik eskuratutako datuetatik abiatuta.


UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak antolatutako jardueretan, guztira, EAEko 5.860<sup>6</sup>ikaslek parte hartu zuten.

### Espainiar estatuko beste leku batzuetako ikasleak.

Izendapen horren barruan, estatu osotik etorritako ikasleak biltzen dira, EAEkoak izan ezik. Egindako kalkuluen arabera, talde honetan **parte hartzaile bakoitzeko eguneko batez besteko gastua 68,28 €-koa** da. Zifra hori lortzeko, Turismoaren Euskal Agentziak argitaratutako bi azterketa erabili ditugu. Alde batetik, *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa* azterketara jo dugu; izan ere, gure ikuspegiaren arabera, lan horrek modu fidagarrian eman diezaguke talde horren gastu portaera. Bestalde, aipatu berri dugun azterketak egunean egindako gastuaren diru zenbaketa egiten ez zuenez, *Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turisten portaeraren estimazioa* azterketa erabili dugu laguntza gisa, datu hori lortzeari begira.

<sup>6</sup>UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak emandako datuak.

Hori esanda, Espainiako estatuko beste leku batzuetako ikasleen eguneko gastua honela banatuta geratuko litzateke:



Iturria: guk egina, lan honetatik hartutako datuetatik abiatuta: *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa eta Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turisten portaeraren estimazioa*. Turismoaren Euskal Agentzia (2014).

Kontuan hartu behar da parte hartzaile bakoitzeko batez besteko eguneko gastuaren zenbaketaren barruan ostatu gastuak sartzen direla. Kalkulua egitean, espainiar estatutik etorritako parte hartzaile guztiek gaua hemen igaro dutela suposatu dugu. Suposamendu hori, neurri batean, okerra izan daiteke, EAeko probintzia mugakideetako ikasle askok "txangozale" izaera eduki baitezakete. Horrenbestez, "goraka" egindako estimazio hori konpentsatze aldera, aurreko atalean suposatu dugu EAeko ikasle bakar batek ere ez duela gaua igarotzen.

Aurrekoa aintzat hartuta, Turismoaren Euskal Agentziak egin eta lehen aipatutako azterketei erreparatuta, espainiar estatuko beste leku batzuetatik datozen ikasleek batez beste **2,79 eguneko egonaldia** egiten dute.

Amaitzeko, 2016. urtean, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak antolatutako jardueretan, espainiar estatuko beste leku batzuetatik etorritako **3.362<sup>7</sup> ikaslek** parte hartu zuten, guztira.


<sup>7</sup>UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak emandako datuak.



**EBko ikasleak**

Talde hau Europar Batasuneko (EB) estatukide bateko naziotasuna duten ikasleek osatzen dute, aurreko atalean zenbatutako espainiar naziotasuneko ikasleak kanpoan utzita, noski. Parte hartzaile bakoitzaren batez besteko gastua, gastu portaera eta batez besteko egonaldia kalkulatzeko, lehengo azterketetara jo dugu, eta espainiar estatuko beste leku batzuetako ikasleekin erabilitako prozedura berberei jarraitu diegu.

Egindako balioespenak adierazten digu **parte hartzaile bakoitzeko batez besteko gastua eguneko 81,18 €-koa dela**, eguneko gastuaren banaketa honako ezaugarri hauek izanik:



Iturria: guk egin, lan honetatik hartutako datuetatik abiatuta: *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa eta Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turisten portaeraren estimazioa*. Turismoaren Euskal Agentzia (2014).


Era berean, parte hartzaile bakoitzak batez beste **4,14 eguneko egonaldia egin du**, eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren jardueretan EBtik etorritako **649<sup>8</sup>** ikaslek parte hartu zuten, guztira.

<sup>8</sup>UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak emandako datuak.

### Munduko beste leku batzuetako ikasleak

Talde honetan EBtik kanpoko herrialde bateko naziotasuna duten ikasleak sartzen dira. Parte hartzaile bakoitzeko batez besteko gastua, gastu portaera eta batez besteko egonaldia kalkulatzeko, azterketa berberetara jo dugu, eta espainiar estatuko beste leku batzuetako ikasleekin erabilitako prozedura berberei jarraitu diegu.

Hori esanda, **parte hartzaile bakoitzak batez beste 92,74 €-ko gastua** egin zuen, eguneko gastuaren banaketak honako ezaugarri hauek izanik:



Iturria: guk egin, lan honetatik hartutako datuetatik abiatuta: *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa eta Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turisten portaeraren estimazioa*. Turismoaren Euskal Agentzia (2014).

Era berean, parte hartzaile bakoitzeko batez besteko egonaldia 4,14 egunekoa izango litzateke, eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren jardueretan munduko beste leku batzuetatik etorritako **704<sup>9</sup> ikasle** parte hartu zuten guztira.

### B. Irakasleak

Aurreko urtearekin alderatuta, jardueretan parte hartu zuten irakasleen kopurua 1521etik 1.692ra igo zen, igoera %11,24koa izanik. Igoera hori aintzat hartuta, irakasle/jarduera ratioa 10,19 izan zen.

<sup>9</sup>UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak emandako datua.

Ikasleak jatorriaren arabera banatzeko erabili dugun argudio ildoari jarraiki, egoki iritzi diogu irakasleak irizpide berberen arabera multzokatzeari. Hau da, bereizita aztertu ditugu EAEko irakasleak, espainiar estatuko beste leku batzuetako irakasleak, EBko irakasleak, eta munduko beste leku batzuetako irakasleak.

Era berean, **parte hartzaile bakoitzeko batez besteko gastua, gastuaren banaketa eta batez besteko egonaldia** kalkulatzeko prozedura ikasleen kasuan erabilitako berbera izan da; hortaz, **ikasleen balio berberak erakusten dizkigute**. Aldaketa bakarra izan da zifra horietatik ostatu gastuak kentzea, gastuok osorik ordaintzen baititu UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak.

Aurrekoa aintzat hartuta, jatorri bakoitzaren arabera irakasleen batez besteko gastua honako hau izan da:



Iturria: guk egina, lan honetatik hartutako datuetatik abiatuta: *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turistaren portaeraren estimazioa eta Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turistaren portaeraren estimazioa*. Turismoaren Euskal Agentzia (2014).

Ikus daitekeen moduan, EBko irakasleen eta munduko beste leku batzuetako irakasleen datuak batera aurkeztu dira. UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak jatorri horietako irakasleen kopuruari buruzko datuak ez dituenez, gastuaren kalkulua agregatua egin da.

Irakasleen kopuruari dagokionez, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren datuen arabera, **872 EAEkoak dira, 469 estatuko beste leku batzuetakoak, eta 351 EBkoak eta munduko beste leku batzuetakoak.**

### C. Laguntzaileak

Laguntzaileak parte hartzailearekin batera jardueraren lekura bidaiatzen duten pertsona gisa definituko ditugu. Pertsona horiek, ordea, ez dute jardueretan parte hartzen, eta parte hartzailearekiko lotura afektiboa izaten da hona etortzearen arrazoia.

Ikasleekin eta irakasleekin egin bezala, laguntzaileak jatorriaren arabera banatuko ditugu, haien kopurua eta tipologia aztertzeko. Irakasle eta ikasleen gastu eremuan eta kopuruan argudiatu dugun moduan, bereizketa horren arrazoi nagusia da jatorriaren arabera nabarmen aldatzen direla laguntzaileen gastu kopurua eta tipologia.

Orain arte bezala, aldagai horiek zifra zehatzetan emateko, Turismoaren Euskal Agentziak egindako hainbat azterketa erabili ditugu.<sup>1011</sup>

Nabarmenezkoa da analisi honetan ez ditugula aintzat hartuko EAEko laguntzaileak, **irakasle eta ikasle horiek guztiak bakarrik etortzen direlakoan**. Gainerako jatorriak aztertzeko, orain arteko irizpide bera erabiliko dugu.

#### **Estatuko beste leku batzuetako laguntzaileak.**


*Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turistek portaeraren estimazioazterketaren arabera, estatuko beste leku batzuetako irakasleen eta ikasleen % 84,70 bakarrik etortzen dira. Bestela esanda, parte hartzaileen % 15,3 bakarrik etortzen dira norbaitekin. Era berean, jardueretara lagunduta joandako parte hartzaile guztien ia % 51 bikotearekin etortzen dira, % 16,3 familiarekin, eta % 32 lagunekin.*

Datuen iturri berari jarraituta, parte hartzaile bakoitzak batez beste **1,94 laguntzaile** dituelakalkulatu dugu; zifra hori bera errepikatzen da EBtik eta munduko beste leku batzuetatik etorritako laguntzaileen kasuan. Azpimarratu behar da, halaber, gastu eredia eta banaketa analogoa izango dela, zerpate hartzaile motarekin batera datozen alde batera utzita.

<sup>10</sup>Turismoaren Euskal Behatokia. *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turistek portaeraren estimazioa*, MICE 2012-2013. Turismoaren Euskal Agentzia.

<sup>11</sup>Turismoaren Euskal Behatokia. *Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turistek portaeraren estimazioa*, IBILTUR 2012-2013. Turismoaren Euskal Agentzia.

Beraz, estatuko beste leku batzuetako laguntzaileei buruzko informazioa laburbil dezakegu honako eskema honen bidez:



Iturria: guk egina, lan honetatik hartutako datuetatik abiatuta: *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa eta Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turisten portaeraren estimazioa*. Turismoaren Euskal Agentzia (2014).


### EBko eta munduko beste leku batzuetako laguntzaileak

Atal honetan, EBtik eta munduko beste leku batzuetatik etorritako laguntzaileen ezaugarriak batera aztertuko dira. Atal honetan erreferentzia gisa hartutako azterketak bi jatorri horietako laguntzaileei lotutako xehetasunak batera lantzen dituzenez, haien analisia ere batera egingo dugu.

Alde batetik, talde horretako parte hartzaileen kopuru osotik, **% 24,4 lagunduta etortzen** dira, **kasuen % 51,2 bikotekidearekin**, **kasuen % 16,4 familiarekin** eta **kasuen % 31,5 lagunekin**. Ohartuko garenez, laguntzaile mota horren ehunekoak ia ez dira aldatzen estatuko beste leku batzuetako laguntzaileen ehunekoekin alderatuz gero.

Lehen aipatu dugun moduan, lagunduta joandako parte hartzaile bakoitzeko laguntzaileen batez bestekoa **1,94 laguntzaileena** da.

Bestalde, aztertzen ari garen jatorrietarako irakasleen kasuan datu bereziak ez ditugunez, ezin ditugu eman horri buruzko datuak modu berezian. Ostera, ikasleen kasuan, datuak berezita aurkeztuko ditugu. Hortaz, EBtik eta munduko beste leku batzuetatik etorritako laguntzaileak jarraian emandako eskema honen arabera banatzen dira:



Iturria: guk egin, lan honetatik hartutako datuetatik abiatuta: *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa eta Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turisten portaeraren estimazioa*. Turismoaren Euskal Agentzia (2014).

IKASLE, IRAKASLE ETA LAGUNTZAILEEN LABURPEN TAULA			
Irakasleak	Kop.	€/eguna	Laguntzaileak
EAE	872	20,97 €	0
Estatuko beste leku batzuk	469	41,72€ / 68,28€	139
EB, munduko gainerako lekuak	351	53,13€ / 86,96€	166
<b>Ikasleak</b>			
EAE	5.860	20,97 €	0
Estatuko beste leku batzuk	3.362	68,28 €	998
EB	649	81,18 €	307
Resto del Mundo	704	92,74 €	333

Iturria: guk egin, lan hauetatik hartutako datuetatik abiatuta: *Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa* eta *Euskadira aisialdirako bisititzen duten turisten portaeraren estimazioa*. Turismoaren Euskal Agentzia (2014) eta *Evaluación del impacto económico de la Capitalidad Cultural*, Donostiako Sustapena (2017).

#### 4. Eragin ekonomikoaren kuantifikazioa

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak egindako jardueretatik eratorritako eragin ekonomikoa kalkulatzeko, hiru alderdi desberdin hartu dira aintzat:

1. UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak EA Eren ehun sozioekonomikoan txertatutako gastua, bai bere egitura propioaren bidez, bai programatutako jarduerak garatzeko mugitutako enpresa eragileen bidez. **Horri zuzeneko eragina** deituko diogu.
2. UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren jardueretara eratorritako publikoak – ikasleak, irakasleak edo laguntzaileak izan – egindako gastua. Gastu horren zenbatekoa hainbat hiri zerbitzutan egindako gastuari lotuta dago. **Horri zeharkako eragina** deituko diogu.
3. Gastu horrek guztiak erosketen eta zerbitzuen kontratazio kate jarraitu baten bidez sortu duen herrestatze efektuari, berriz, **induzitutako eragin** deituko diogu.

Hiru eragin alderdi horien ekintzak batuz gero, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak antolatutako jarduerak traxionatutako produkzio ekonomikoaren bolumena **3.781.181,97 €**-koa izan zen, eta produkzio horrek, gutxi gorabehera, **lanaldi osorako 32 enplegu baliokide behar izan zituen**. Era berean, jarduera horietatik eratorrita, euskal administrazio publikoek guztira **70.084,95 €-ko** diru sarrera garbia izan zuten, diru bilketan.

Jarraian, emaitzak xehetasun maila handiagoz ematen ditugu.

##### A. Zuzeneko eragin ekonomikoa: UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa

2016. urtean, 180 jarduera antolatu ziren; 10.575 ikaslek eta 1.692 irakaslek parte hartu zuten guztira; eta, **1.623.488,60 €-ko** aurrekontua behar izan zen. Dena den, azterketaren eremu geografikoa EA Era mugatzen denez, EA En egindako aurrekontu gastua **1.373.209,55 €<sup>12</sup>**-koa izan dela kalkulatu dugu.

<sup>12</sup>Ez dira sartu amortizazioetarako zuzkidurak, ez direlako kanpo hirugarren bati egindako ordainketa bat eta, beraz, ez delako sartzen ehun ekonomikoan. Ez dira sartu, halaber, aparteko gastuak, *Kreditu*





Euskal ekonomian txertatutakogastu osotik, **301.968,12 €** zerga erakundeek beretu zituzten BEZ, PFEZ eta Gizarte Segurantzaren kontzeptuetan. Gizarte Segurantzaren zerga gastuak **115.054,07 €-koak** izan ziren, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean ordaindu ziren osorik. PFEZi zegokion gastuaren sarrera (**77.935,72 €**) Gipuzkoako Foru Aldundiak beretu zuen, haren egoitza nagusian biltzen baita UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak sortutako enplegua. Amaitzeko, BEZ gastuaren sarrerak (**108.978,33 €**) Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek jaso zituzten, baina ez dakigu zer proportziotan banatu zen.

Horrenbestez, zerga erakundeek beretutako aurrekontu zenbatekoa kanpoan utzita, euskal ehun ekonomikoari itzulitako zuzeneko gastu garbia **1.071.241,43 €-koa** izan zen.

Era berean, 2016. urtean, UPV/EHUko Uda Ikastaroak antolatzeko 10 enplegu finkoko egitura bat behar izan zen, eta horietako bost aldizkako erregimenean aritu ziren 9 hilabetez. Halaber, aipatutako pertsona kontratatuz gain, aldi baterako enplegu osagarria kontratatu zen. Gainera, Fundazioak praktiketako ikasleen laguntza ere jaso zuen.

**UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAREN 2016KO AURREKONTU GASTUAREN BANAKETA**

KONTABILITATE GASTUAREN PARTIDAK	2016KO GASTUA	GASTU OSOAREN %
60. Erosketak	96.987,66 €	% 5,97
62. Kanpo zerbitzuak	988.651,11 €	% 60,90
64. Langile gastuak	444.067,93 €	% 27,35
65. Beste kudeaketa gastu batzuk	9.329,13 €	% 0,57
66. Finantza gastuak	1.895,16 €	% 0,12
67. Aparteko gastuak	25.515,09 €	% 1,57
68. Amortizazioak	57.042,52 €	% 3,51
<b>GASTU OSOA</b>	<b>1.623.488,60 €</b>	<b>% 100,00</b>

**AURREKONTU GASTU OSOA**  
**1.623.488,60€**



**EAEn egindako aurrekontu gastua**  
**1.373.209,55 €**

EAEn zuzeneko eragina osatzen duten gastu partidak	2016KO GASTUA	GASTU OSOAREN %
60. Erosketak	81.742,08 €	% 6,68
62. Kanpo zerbitzuak	826.175,25 €	% 60,16
64. Langile gastuak	444.067,93 €	% 32,34
65. Beste kudeaketa gastu batzuk	9.329,13 €	% 0,68
66. Finantza gastuak	1.895,16 €	% 0,14
<b>GASTU OSOA</b>	<b>1.373.209,55 €</b>	<b>% 100,00</b>

**ZERGA GASTUA: 301.968,12 €**

Gizarte Segurantza    115.054,07 €

BEZa                      108.978,33€

PFEZa                     77.935,72 €

**EAEn ehun ekonomikora itzultako zuzeneko gastua**  
**1.071.241,43 €**

## B. Zeharkako eragin ekonomikoa

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak, orotara 14.210 parte hartzaile edukita, hainbat hiri zerbitzuri lotutako **1.858.540,66 €-ko** gastu balioetsia egin zuen, EAEn.Kopuru hori % 10 baino gehiago igotzen da, Fundazioaren aurrekontuarekin alderatzen badugu.Foru aldundiek gastu horrek sortutako BEZagatik izandako diru sarrera aintzat hartzen badugu, ekonomiari itzultzen zaion zenbateko garbia orotara **1.643.197,12 €-koa** dela kalkulatu dugu.Parte hartzaile moten arabera<sup>13</sup>, gastua honela banatzen da:

### Ikasleak eta beren laguntzaileak

Parte hartzaileen talde honek sortu zuen gastu handiena, haren zenbatekoa**1.668.439,22<sup>14</sup> €-koa** izan zela kalkulatu baita.Jatorriaren arabera, espainiar estatuko beste leku batzuetako ikasleek egin zuten gasturik handiena, osoaren % 49,78; haien atzetik, munduko beste leku batzuetako eta EBko ikasleek gastu osoaren % 23,87 eta % 19,26 egin zuten, hurrenez hurren.Amaitzeko, EAEko ikasleek, gehiengoa izan arren, gastu horren % 7,36 egin zuten soilik.

Gastuaren tipologia aztertuta, gehien-gehiena osatuetan geratu zen, osoaren % 35,87, eta beste zati handi bat gastronomiak eta sukaldaritzak beretu zuten, osoaren % 30,77 izanik.Horrenbestez, gastu nagusia ostalaritza sektorean egin zen:**1.111.765,54 €** guztira.

Amaitzeko, ikasleek egindako gastutik eratorrita, administrazio publikoek BEZri zegokion**189.732,34 €** inguruko diru sarrera izan zuten.Hala, ikasleen eragin ekonomikoa garbia **1.478.706,87 €-koa** izan zen

<sup>13</sup>Datuak modu agregatuaren ematen dira, honela:ikasleak eta beren laguntzaileak, eta irakasleak eta beren laguntzaileak.

<sup>14</sup>Ostatu beketan izandako 4.564,52 €-ko gastua kendu da, dagoeneko zuzeneko eraginean kontabilizatu baita.




## Irakasleak eta beren laguntzaileak

Irakasleen eta bere laguntzaileen taldeak guztira **190.101,44 €**-ko eragina izan zutela kalkulatu da. Gastua lehentasunen arabera antolatuta, EBko eta munduko beste leku batzuetako irakasleen datuak batera zenbatu direnez, talde horrek gastuaren % 57,96 egin zuen. Kasu honetan, espainiar estatuko beste leku batzuetako irakasleek eta EAEko irakasleek gastuaren % 34,31 eta % 7,74 egin zuten, hurrenez hurren.

Gastuaren tipologia aztertuta, ostatu gastuak kanpoan egonda ere, ostalaritzako gastuek eratu zuten kopuru handiena, osoaren % 55,30 izan baitzen.

Irakasleen eta beren laguntzaileen kasuan, sortutako gastutik eratorrita administrazio publikoek BEZari zegokion **25.611,19 €** inguruko diru sarrera izan zuten. Horrela, irakasleek sortutako eragin ekonomiko garbia **164.490,25 €**-koa izan zen.

ZEHARKAKO ERAGIN EKONOMIKOA:UPV/EHUko UDA IKASTAROAK  
FUNDAZIOAREN JARDUERETAN PARTE HARTZAILEEK MOBILIZATUTAKO



**IKASLEEN ETA BEREN LAGUNTZAILEEN GASTU ESTIMATUA  
KONTZEPTUEN ARABERA**


Kontzeptua	€	%
Iturria: guk egina, lan hauetatik hartutako datuetatik abiatuta: Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa eta Euskadira aisialdirako bisitatzan duten turisten portaeraren estimazioa. Turismoaren Euskal Agentzia (2014) eta Evaluación del impacto económico de la Capitalidad Cultural.		
Garraioa, norakoan	121.433,61 €	% 7,28
Erosketak	154.674,54 €	% 9,27
Museo / ikuskizunetarako sarrerak	31.255,54 €	% 1,87
Bestelako gastuak	249.309,98 €	% 14,94
Guztira	1.668.439,22 €	% 100,00

**Gastu osoa  
1.668.439,22 €**

**Sortutako  
BEZa  
189.732,34 €**

=

**Gastu garbia  
1.478.706,87 €**



**IRAKASLEEN ETA BEREN LAGUNTZAILEEN GASTU ESTIMATUA KONTZEPTUEN ARABERA**

Kontzeptua	€	%
Gastronomia / Sukaldaritza	97.130,93€	% 41,09
Ostatua	33.580,88€	% 14,21
Garraioa, norakoan	22.820,59 €	% 9,66
Erosketak	28.290,35€	% 11,97
Museo / ikuskizunetarako sarrerak	6.089,16 €	% 2,57
Bestelako gastuak	48.473,30 €	% 20,50
<b>Guztira</b>	<b>190.101,44 €<sup>*15</sup></b>	<b>% 100,00</b>

Iturria: guk egina, lan hauetatik hartutako datuetatik abiatuta: Euskadira Kongresuetara eta Konbentzioetara etortzen diren turisten portaeraren estimazioa eta Euskadira aisialdirako bisitatzen duten turisten portaeraren estimazioa. Turismoaren Euskal Agentzia (2014) eta Evaluación del impacto

**Gastu osoa<sup>\*15</sup>**  
**190.101,44 €**

—


**Sortutako BEZA**  
**25.611,19 €**

=

**Gastu garbia**  
**164.490,25€**

### C. Induzitutako eragin ekonomikoa

Zeharkako eta zuzeneko eraginak sortutako gastu garbien batura **2.714.438,55 €**-koa da. Induzitutako eraginaren kalkuluaren bidez, gastu horrek guztiak euskal ekonomian izan duen arraste efektua zenbatu nahi izan dugu; hau da, zuzeneko eta zeharkako eraginetatik eratorritako gastuek abian jarritako erosketen eta zerbitzuen kontratazio katearen balioa kalkulatu dugu.



Kalkulu hori ahal bezainbesteko zehaztasunez egiteko, eragin ekonomikoari buruzko hainbat azterketa analizatu ditugu. Horrela, erabilitako hainbat metodologia alderatu, eta gure analisisira ongien moldatzen dena aukeratu dugu.

Hortaz, sistema ekonomiko batean egindako transakzioek elkarren mendekoak diren fluxuen (bai ondasun eta zerbitzuen, bai produkzio faktoreena) sistema bat eratzen dutela kontuan hartuta, egoki iritzi diogu Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) aldizka argitaratutako Input-Output (TIO) taulak erabiltzeari.

TIO tauletatik abiatuta eta *Leontiefen alderantzizko matrizearen* metodoa aplikatuta, hainbat biderkatzaile kalkulatu dira jarduera sektore bakoitzerako: produkzioa, balio erantsi gordina, soldata eta ordainsariak, gizarte kotizazioak, BEZa, eta enplegua.

Ostera, metodo honen<sup>15</sup> baitakobalitzko sinplifikatzaileak –analisi errealitateetik urruntzen dutenak– alde batera utzita, emaitzetan desbideratzeak sor ditzaketen bi eragozpen ikusten dizkiogu gure kalkuluari. Alde batetik, analisisian erabili dugun TIOa, EUSTATEk argitaratutako azkena, 2010. urtekoa da. Horren ondorioz, agian aldaketak eman dira industria arteko egituran, are gehiago kontuan hartzen badugu 2010. urtean ekonomia aspaldiko depresiorik handiengan murgilduta zegoela eta azken

<sup>15</sup>Metodoaren mugei buruzko azalpen zabalago baterako kontsultatu hemen: Leontief, Wassily W. *Input-Output Economics*. 2. Argitalpena, New York: Oxford University Press, 1986.

urteetan ekonomia erreforma garrantzitsuak eman direla. Bestalde, TIOak industria arteko erlazioak erakusten dizkigu EAE osoabarne hartuta aztergai modura. Alabaina, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren jarduera gehienak Gipuzkoan egiten direnez, EAEn TIO tauletatik eratorritako biderkatzaileen erabilerak desbideratzeak eragin ditzake.

Aurreko guztia kontuan hartuta, gastu tipologia bakoitzeko gastu biderkatzaile egokiak aplikatuta, hurrengo taulan balioetsitako egoera agregatua laburbiltzen dugu<sup>16,17</sup>:

<b>SORTUTAKO GASTU GARBIA</b>	<b>2.714.438,55 €</b>
<b>PRODUKZIOA</b>	<b>3.781.181,97 €</b>
<b>BPGd</b>	<b>2.228.580,98 €</b>
<b>BALIO ERANTSI GORDINA</b>	<b>1.865.079,02 €</b>
<b>ENPLEGUAK (ETC)</b>	<b>32,07</b>
<b>ADMINISTRAZIOAK</b> <b>BERRESKURATUTAKOA</b>	<b>889.480,52 €</b>
<b>Gizarte Segurantzza</b>	<b>336.794,45 €</b>
<b>Produktuen gaineko zergak (BEZ,...)</b>	<b>363.501,96 €</b>
<b>PFEZ</b>	<b>189.184,11 €</b>

Horrela, 2016an egindako gastu garbiaren bolumenak (2.714.438,55€) arraste efektu bat eragin zuen ekonomian, ondasunen eta zerbitzuen salerosketa kate baten bidez eskaera asetzeko, eta horrek **3.781.181,97 €-ko produkzioa eragin zuen soilik Euskal Autonomian Erkidegoan egin zena. BPGg terminoetan, 2.228.580,98 €-ko errenta sortu zuen, eta balio erantsi gordineko terminoetan, berriz, 1.865.079,02 €-ko zenbatekoa, eta EAeko ekonomiari eman zitzaizkion bi-biak osorik.**

Fundazioaren jardueren multzo osoak mobilizatutako gastuek ekarritako produkzioaren igoerari erantzuteko, **lanaldi osoko 32 enplegu baliokide behar izan zirela kalkulatu da.**

<sup>16</sup>Sektore publikoan egindako gastuetatik eratorritako zenbatekoei BEZaren, Gizarte Segurantzaren eta PFEZaren zenbatekoak gehitu dizkiogu, zeinak egindako gastua baino lehen atera baititugu.

<sup>17</sup>PFEZaren kalkulurako, *soldatak eta ordainsariak* biderkatzailetik abiatuta, EAeko batez besteko soldata gordinarekin bat datorren PFEZ tasa aplikatu dugu.



**Administrazio publikoek, berriz, guztira 889.480,52 € jaso zituzten beren diru kutzetan.** Gizarte Segurantza alde batera utzita, horren diru bilketa administrazio zentralaren esku baitago, **Fundazioak egindako jarduerak 552.686,07 €-ko diru sarrera eragin dute euskal administrazioetan.** Hainbat eragile publikok<sup>18</sup> finantzatutako aurrekontuaren zatia (477.500 €) kontuan hartzen bada, euskal administrazio publikoek eskuratutako diru sarrera garbia 75.186,07 € ingurukoa izan da.

Horrelako ekitaldien eragin ekonomikoari buruzko azterketen gabezia dela eta, zailagoa da lortutako emaitzak alderatzea. Zentzu horretan, lortutako zifrak kokatu nahian, dagoeneko beren eragina zenbatu duten unean uneko beste ekimen batzuk aipatuko ditugu. Hortaz, ekimenen tipologia desberdintasunez jabetuta eta eragina neurtzeko metodologiaren artean egon daitezkeen aldeak ahaztu gabe, Musika Hamabostaldiari (2016) eta *Jazzaldiari* (2015) buruzko azterketak hartuko ditugu erreferentzia gisa<sup>19</sup>. Konparaketak egiteari begira sortutako produkzio tamainari erreparatuta, beraz, UPV/EHUko Uda Ikastaroen Fundazioaren eragina Musika Hamabostaldia sortutako produkzioaren ia % 70 izan zen, eta *Jazzaldiak* sortutako produkzioaren % 34 inguru.

---

<sup>18</sup>UPV/EHU (157.600€), Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza) (90.000€), Gipuzkoako Foru Aldundia (51.500€), Donostiako Udala (80.000€), Osakidetza (40.000€), FDS2016 (18.000€), eta Eusko Jaurlaritza (Prest Gara) (40.400€).

<sup>19</sup>Hamabostaldiaren eragina 5,4 milioi eurotan baloratzen da, eta *Jazzaldiarena*, berriz, 11.138.637 eurotan.

## 5. Eragin mediatikoa

Gorago aurreratu dugun moduan, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak 166 jarduera antolatu zituen, askotariko gaien inguruan. Gizartearentzako interes handiko gaiak zirenez eta pertsona ospetsuek parte hartu zuten, ekimenak hedabideen interesa piztu zuen eta, beraz, antolatutako jarduera askoren berri eman zuten.

Nabarmetasun mediatiko hori datu zenbagarrietara eraman nahian, ikastaroek lortutako *egituratu gabeko*<sup>20</sup> publizitatearen gastua balioetsi dugu. Hau da, ikastaroek hedabideetan izandako presentziaren kostua zenbatu dugu, publizitate kostuen terminoetan. Hedabideetan izandako agerraldien kostua kalkulatzeko, indarrean diren publizitate tarifak hartu dira abiapuntutzat.

Aurrekoa kontuan hartuta, 2016. urtean, **469 agerraldi inguru izan ziren hedabideetan**. Hedabide motari erreparatuz gero, **prentsa idatzian eta irradian** eman ziren agerraldi gehienak, 173 eta 126 agerraldi, hurrenez hurren, eta **prentsa digitalak** estaldura nabarmena eman zuten, jarduerak guztira **93 aldiz agertu baitziren**.

Egin dugun kalkuluaren arabera, agerraldi horietatik sortutako kontrabaliario ekonomikoa **1.237.234,00 €-koa da**, eta zenbateko horretatik **656.232,98 € prentsa idatziari** daude lotuta (**osoaren % 53,04**).

Estaldura mediatikoak hainbat difusio kanal hartu zituen. Hala, orain arteko zerrendari<sup>21</sup> telebista, aldizkariak, argitalpen digitalak, *blogak* eta komunikazio agentziak gehi diezaiokegu. Barietate horrek **eta 96 hedabide desberdinek** Fundazioak antolatutako jardueren berri eman izanak publikoa anitz eta heterogeneo batera iristeko bidea eman zuten.

Gure balorazioaren arabera, **hedabide bakoitzean izandako agerraldi bakoitzeko batez besteko audientzia tasaia 155.000 pertsonakoa** izango litzateke (154.913,64 pertsona<sup>22</sup>). Zifra horrek, publiko hartzailearen heterogeneotasunarekin batera, jakintzaren dibulgazioa nabarmen bultzatzeko aukera ematen du, hori baita UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren helburu nagusietako bat.

Hedabideen aniztasuna berriro azpimarratze aldera, prentsa agerraldi gehienak probintzia edo erkidego mailako<sup>23</sup> hedabideetan eman diren arren, nabarmendu

<sup>20</sup> Agustín Arretxe Arostegik *El Centro Kursaal y su impacto económico, Un contraste metodológico* lanean erabilitako kontzeptua.

<sup>21</sup> Prentsa idatzia, prentsa digitala eta irrata.

<sup>22</sup> Hainbat inkesta erabili dira, nagusiki honako hauek: *EGM* (2016), *OJD* (2016) eta *CIES* (2016).

<sup>23</sup> Euskal Autonomia Erkidegoari buruzkoa.



behar dugu zenbait kasutan estatu mailako eta difusio handiko hedabidetan izan direla agerraldiak. Aipa ditzakegu, besteak beste, *Muy Interesante* aldizkaria, *El Mundo* egunkaria eta *TVE* eta *Antena 3* telebista kateak.

Amaitzeko, UPV/EHUko Uda Ikastaroen eragin mediatikoaren ahalmena orain arte emandako zifretan islatutakoa baino handiagoa dela uste dugu. 2016. urtean, hedabideetan politika izan zen protagonista nagusia. 2015eko abenduaren 20ko hauteskunde orokorretatik hasita, hurrengo urteko ekainaren 26an hauteskundeak berriro egin eta gobernua osatu arte, politika izan zen hedabideen eduki nagusia. Gogoratu behar dugu, gainera, EAEn hauteskunde prozesua bikoitza izan zela; izan ere, irailaren 25ean hauteskunde autonomikoak egin ziren. Hortaz, gertatutako hori guztia anomalia bat dela ikusita, baldintza "arruntetan" eragin mediatikoa handiagoa izango litzatekeela irizten diogu.

Atal honetan ez dugu kontuan hartu webgune propioaren eta sare sozialen bidez egindako dibulgazioa.

## 6. Eragin "intangiblea"

Orain arte egindako analisia gehienbat kuantitatiboa izan da, arreta nagusia UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak sortutako eragin ekonomikoen eta mediatikoen neurketan jarri baitugu. Nolanahi ere, gure iritziz, eraginak lehen aipatutako dimentsioak gainditzen ditu, eta arlo soziokulturalaren espektro zabal bat hartzen du. Gure iritziz, beraz, Fundazioaren eragina kuantifikagarria denaz harago doa, eta dimentsio anitzeko izaera du.

Hori dela eta, gure ikuspegitik Fundazioak antolatutako jarduerak sortzen dituzten eragin "intangibleak" biltzeari ekin diogu. Eginkizun horretan, horrelako eraginak neurtzen zailak direla eta, beraz, termino kuantitatiboetan nekez adieraz daitezkeela gogoan izanda, horiek deskribatzera eta zerrendatzera mugatu gara.

### A. Eragin "intangibleen" deskribapena eta zerrendaketa

Fundazioak sortutako eraginen dimentsio anitzeko izaera abiapuntutzat hartuta, eragin guzti-guztiak norabide bakarrean elkartzen direla uste dugu: **lurrealdearen garapena hobetzen** laguntzen dute. Pentsamendu ortodoxoan nagusi den *Garapenaren* dimentsio bakarreko interpretazioa –alderdi ekonomikoa lehenesten duena– alde batera utzita, kontzeptua ikuspegi zabalago batetik landu dugu. Hau da, alderdi ekonomikoa albo batera utzi gabe, alderdi soziokulturalak txertatu ditugu, *lurrealdearen garapena hobetzen* laguntzen duten tresna gisa.

Gaiari helduta, hona hemen identifikatu ditugun eragin esanguratsuenak:

- **Harremanetarako kapitala.** Kontzeptu honen baitan, Fundazioaren jarduerak pertsonen eta/edo erakundeen artean sareak eta harremanak sortzeko ematen dituzten aukerak bildu nahi izan ditugu. Era horretan, Fundazioak interakziorako gizarte espazioak sortzen dituela ulertzen da.

Horri dagokionez, gure iritziz, jarduerak enpresen arteko elkarriketa erraztu dezakete, lagungarriak baitira etorkizunean eman daitezkeen aliantzen edo lankidetzaren harremanen oinarriak finkatzeko. Prozesu hori bera ematen da jakintzaren arloan; izan ere, unibertsitateen edo erakunde zientifikoen arteko harremanak proiektuak martxan jartzeko bultzada bat izan daitezke. Era berean, jarduerak alde anitzeko lankidetzaren harremanak ezartzeko bide eman dezakete (esate baterako, enpresa-unibertsitate-sektore publikoa).

Laburbilduta, askotariko eragileak (enpresak, unibertsitateak, zientzia erakundeak, sektore publikoa...) elkartzen dituen foro bat denez, elkarrizketa ahalbidetzen da, eta lankidetzaren harremanak ezartzeko aukerak zabaltzen dira.

- **Kulturen arteko elkarrizketa foroa.** Lehen ikusi dugun moduan, jarduera askok nazioarteko ikuspegia dute, eta horren eraginez bisitariak planetako 5 kontinenteetatik etortzen dira. Hori kontuan hartuta, gure iritziz, jarduerak kulturen arteko elkarrizketa eta kultura aniztasuna bultzatzen dute, eta lagungarriak dira, beraz, herritartasun globala eraikitzeko lanean.

Agertu diren indar nazionalisten eta protekzionisten tentsioak eraginda globalizazio prozesua inflexio puntu batean dagoen honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da maila globaleko zenbait alderdi birplanteatzea. Hori dela eta, kultura aniztasunetik abiatuta, denon artean eraiki eta partekatutako testuinguru global batera joateko foro gisa dira ezagunak Uda Ikastaroak.

- **Eztabaida espazioak irekitzea.** Iritzi pluraltasuna eta aniztasuna ezinbesteko baldintza bat da, errealitatea sakontasun handiagoz ezagutzeko. Horregatik, jarduerak antolatzen direnean, Fundazioak hainbat ikuspegi barneratu nahi izaten ditu, batez ere gai jakin bati buruzko eztabaida sakonak ematen direnean.

Pluraltasun osagai horrek ahalbidetzen du, hain zuzen, jarduerak eztabaida espazio interesgarri bihurtzea, non elkarrizketaren eta ideien kontrastearen bidez publikoak ikuspegi zabalagoa eduki dezake, iritzi propioak sortzeari begira.

Urte luzez hain polarizatuta egon den euskal gizartean, non eztabaidetan jarrera immobilistak eman diren eta elkarrizketa apenas egon den, eztabaida irekirako espazioak sortzeak sekulako garrantzia dauka.

- **Foro bat, ideia alternatibo, desberdin eta berritzaileetarako.** Ezagutzaren eta ideien mundua dinamikoa da, eta eraldaketa prozesu etengabe batean daude murgilduta. Historiaren une jakin batean eztabaidaezintzat zituzten axiomak, kontzeptuak eta lemak edo John Kenneth Galbraithen termino bat erabilita,

*jakintza konbentzionala*<sup>24</sup> denbora igarotzearekin batera alda daitezke, faltsutzat jotzera iristeraino.

*Jakintza konbentzionalaren* defendatzaileek, askotan, albo batera uzten dituzte haiek defendatutako postulaturen bat zalantzan jartzen duten ideiak. Hala, ikuspegi interesgarriak eman edo zenbait alderdiren gaineko eztabaidak piztu ditzaketen ideiak bazterrean geratzen dira, difusiorako ia aukerarik gabe.

Alderdi honetan, Fundazioaren jarduerak era guztietako ideietara daude irekita, inolako zentsurarik gabe, eta arrazoi batengatik edo beste batengatik espazio tradizionaletatik kanpo dauden kontzeptuei buruz eztabaidatzeko aukera ematen dute.

Horiek dira, beraz, identifikatutako eragin soziokultural garrantzitsuenak. Gure iritziz, ez dira eragin independenteak elkarren artean; haatik, harreman estua dute guztiek, eta *lurrealdearen garapena hobetzen* terminoari laguntzeko sinergiak sortzen dituzte. Garapena hobetzeko ekarpen hori bi alderdi desberdinetatik egiten dela irizten diogu.

Alde batetik, eragin "intangibileek" **palanka funtzioa betetzen dute, gizarte garapenerako**, nola norbanakoaren hala taldearen mailan. Gizarte balioak sustatzen dituzte, hala nola bizikidetzeta, partaidetzeta eta pentsamendu kritikoa, eta horrela pertsonen ongizatea hobetzen laguntzen dute. Bestalde, eragin horiek **lurrealdearen lehia posizioa hobetzen** laguntzen dutela uste dugu; izan ere, hezkuntza maila hobetzen, eta sorkuntza eta berrikuntza sustatzen dute.

---

<sup>24</sup>Galbraith, John Kenneth (1958): "*Theaffluentsociety*" Houghton Mifflin.

## 7. Sintesia eta ondorioak

### A. Uda Ikastaroak zifretan

2016. urtean, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak, guztira, 166 jarduera antolatu, eta 14.211 pertsona mobilizatu zituen. Joandako pertsonen artean, gehien-gehienak ikasleak ziren (10.575 ikasle), baina irakasleen parte hartzea ere nabarmena izan zen (1.692 irakasle). Uda Ikastaroetan zuzenean parte hartu ez bazuten ere, laguntzaile ugari etorri ziren (1.944 laguntzaile).

Ikasleei dagokienez, etorritako guztien % 45 EAetik kanpoko lekuren batetik etorri ziren, eta horrek **erakartzeko ahalmen esanguratsua** inplikatzeko du, parte hartzaileen kopuru handi bat beste leku batzuetatik datorrelako. Izan ere, parte hartzaileen ia % 13 atzerritarrak ziren.

Irakasleek, bestalde, ikasleen antzeko ezaugarriak dituzte, jatorriari dagokionez. Hala, % 51 EAekoak ziren, eta % 28 eta % 21, estatuko beste leku batzuetakoak eta atzerrikoak, hurrenez hurren. Atzerriko irakasleen parte hartze nabarmenak iradokitzen du **jakintzaren dibulgazioa eta zabalkundea nazioarte mailako hedapena lortu duela**.

### B. Eragin ekonomikoa

Fundazioak 2016. urtean antolatutako jardueretatik eratorritako eragin ekonomikoak bereizitako hiru alderdi bildu zituen. Alde batetik, euskal ehun ekonomikoan txertatutako gastua zegoen, Fundazioaren aurrekontutik zetorrena (**Zuzeneko eragina**). Bestetik, jardueretara etorritako publikoak ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua (**Zeharkako eragina**), eta, azkenik, gastu horiek trazionatu zuten salerosketen katea (**Induzitutako eragina**).

- **Zuzeneko eragina:** UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak, bere jarduerak egiteko, 10 langile finkoko egitura bat eta 1.623.488,60 €-ko aurrekontu bat eduki zituen, 2016. urtean. Aurrekontu horretatik, **EAEn egindako gastua 1.373.209,55 €-koa izan zen, eta, zergen eragina kendu ondoren, euskal ehun ekonomikoan 1.071.241,43 € sartu zirela kalkulatu da.**

- **Zeharkako eragina:** Fundazioaren jardueretara etorritako publikoak **ondasun eta zerbitzuetan 1.858.540,66 €-ko gastua egin zuela** kalkulatzen da, Fundazioak aurrekontuan sartutako gastua gainditzen duen kopuru bat. Zeharkako zergen zenbatekoak kendu ondoren, **parte hartzaileek euskal ehun ekonomikoan 1.643.197,12 €-ko gastua egin zutela** kalkulatzen da. Parte hartzaile taldearen arabera, gastu osoa (zeharkako zergak kendu gabe) honela banatuko litzateke:
  1. Irakasleek eta beren laguntzaileek **190.101,44 €-ko gastua egin zuten**, zeharkako gastuaren % 8,5 inguru baino ez.
  2. Aitzitik, askoz ere esanguratsuagoa da ikasleek eta beren laguntzaileek egindako gastua: **1.668.439,22 €**.
- **Induzitutako eragina:** euskal ehun ekonomikoan sartutako gastuen integrazioa, hau da, zuzeneko eraginaren (1.643.197,12€) eta zeharkako eraginaren (1.643.197,12€) batura 2.714.438,55 €-koa izan zen.

2016. urtean, gastu bolumen horrek ondasunen eta zerbitzuen salerosketa kateen segida bat eragin zuen, jarraian ematen ditugun zenbatekoetan agertzen dena:

1. **Produkzioa: 3.781.181,97 €**
2. **BPGd: 2.228.580,98 €**
3. **Balio erantsi gordina: 1.865.079,02 €**
4. **Enpleguak: Lanaldi osoko 32 (32,07) enplegu baliokide.**
5. **Administrazioak berreskuratutakoa: 889.480,52€**

Fundazioaren aurrekontu finantzaketaren zati nabarmen bat erakunde publikoetatik jasotzen denez, aipatu behar da administrazio publikoentzako sortutako itzulera positiboa dela. Kalkuluen arabera, **Fundazioak sortutako jarduera ekonomikotik diru kutxa publikoetara iritsitako diru sarrerek 75.186,07 €-tan gainditzen dute finantzaketa gastua.** Nabarmendu behar da, beraz, **kultura eta interes orokorreko jarduerak administraziorako izaten duten defizit izaerari kontrajarrita, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak superabita sortzen duela; bestela esanda, administrazioak eraginkortasunez esleitzen ditu baliabideak.**



### C. Eragin mediatikoa

Fundazioak antolatutako jarduerak, hedabideetan bereganatu zuten lekua kontuan hartuta, oihartzun nabarmena izatea lortu zuten. Hala, 2016. urtean, jarduerari buruzko 469 agerraldi izan ziren hainbat hedabideetan, eta agerraldi horien kontrabaliario ekonomikoa 1.237.234,00 €-koa izan zela kalkulatu da. Hedabide motaren arabera, prentsa idatzia nabarmendu zen, agerraldien ia %37 lortu, eta sortutako kontrabaliarioaren %53 bereganatu baitzuen.

Guztira, 96 hedabide desberdinek eman zuten jardueren berri, eta agerraldi bakoitzeko batez besteko audientzia 155.000 pertsonakoa izan zen. **Faktore horien elkarketak Fundazioaren dibulgazio izaera indartu zuen, ezagutza publiko plural eta heterogeneo batera helaraztea erraztu baitzuen.**

Amaitzeko, aipatu behar da **2016. urtean hauteskunde orokorrak eta autonomikoak egin zirela eta horren eraginez, gure ustez, eragin mediatikoa ahal baino txikiagoa izan zela.**

### D. Eragin "intangiblea"

Eragin kuantitatiboez gainera, Fundazioak antolatutako jarduerak lurraldea garatzen hobetzen laguntzen duten kanpo eragin positiboak ere badituzte. Eragin horiek dimentsio anitzeko izaera dutenez, haien eragin positiboak hainbat arlotan sortzen dira. Alderdi horri dagokionez, identifikatutako eragin garrantzitsuenak honako hauek dira:

- **Harremanetarako kapitala.** Pertsonen eta/edo erakundeen arteko harremanak eta sareak sortzeko izan daitezkeen aukerak irekitzea.
- **Kulturen arteko elkarrizketarako foroa.**
- **Eztabaida espazioak irekitzea.** Pluraltasun eta parte hartze ikuspegi batetik, gure inguruko errealitatea hobeto ezagutzeko helburuarekin.
- **Foro bat, ideia alternatibo, desberdin eta berritzaileetarako.** Foro tradizionaletatik kanpo dauden ideiei ahotsa ematea.

Eragin horietatik sortzen diren sinergiak lurraldearen ahalmen lehiakorra hobetzen laguntzen dute, eta aldi berean gizarte garapenerako palankak dira, norberaren eta taldearen ongizatea hobetzen dutenak.

## Bibliografia

- Leontief, Wassily w. (1986): **"Input Output economics"**, Oxford University Press.
- Figuerola Palomo, Manuel (2000): **"Introducción al estudio económico del turismo"**, Civitas.
- Bilbao Plaza Marítima SL (1995): **"Estudio del impacto económico del puerto de Bilbao en el País Vasco"**, Gobierno Vasco, Departamento de Transportes y Obras Públicas.
- Raabová, Tereza (2014): **"Economic Impact Calculator: Do It Yourself!"**, Instituto de Arte y Teatro, Praga (Txekiar Errepublika).  
Eskuragarri hemen:  
[https://editorialexpress.com/cgi-bin/conference/download.cgi?db\\_name=ACEI2014&paper\\_id=191](https://editorialexpress.com/cgi-bin/conference/download.cgi?db_name=ACEI2014&paper_id=191)
- Ikertalde Grupo Consultor SA (2016): **"Evaluación del Impacto Económico de la Capitalidad Cultural. Informe de Resultados"**, Donostiako Sustapena.  
Eskuragarri hemen:  
<https://ep00.epimg.net/descargables/2017/04/05/4f0996e0f71bf9f661f67ea851156be1.pdf>
- Arostegi Arretxe, Agustín (2005): **"El centro Kursaal y su impacto económico: Un contraste metodológico"**, Cuadernos de Gestión.  
Eskuragarri hemen:  
<http://www.ehu.eus/cuadernosdegestion/documentos/516.pdf>
- Diaz de Junguitu, Alberto (2005): **"Impacto económico del XVI campeonato del mundo de atletismo Master Stadia"**, Donostiako Sustapena.
- Herrero Prieto, Luis César (2004): **"Impacto económico de los macrofestivales culturales: reflexiones y resultados"**, Valladolideko Unibertsitatea.  
Donostiako Sustapena:  
[http://www.gestioncultural.org/ficheros/1\\_1316768655\\_LHerrero.pdf](http://www.gestioncultural.org/ficheros/1_1316768655_LHerrero.pdf)
- Galbraith, John Kenneth (1958): **"La sociedad opulenta"** Houghton Mifflin.